



**LESAKAKO ALKATEAREN EBAZPENA**  
**RESOLUCIÓN DEL ALCALDE DE LESAKA**

Lesakako alkate jaunak, honako hau ebatzi du 2016ko maiatzaren 13an (e)an:  
El alcalde de Lesaka, ha adoptado, con fecha 13 de mayo de 2016 la siguiente resolución:

<p><b>“(189/2016) KALEFAKZIORAKO ERREGAIA (BIOMASA) HORNITU ETA EKIPOAK MANTENTZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA (Udalobrt/2016/7)</b></p>		<p><b>“(189/2016) ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO PARA EL SUMINISTRO DE COMBUSTIBLE PARA CALEFACCIÓN (BIOMASA) Y MANTENIMIENTO DE LOS EQUIPOS (Udalobrt/2016/7)</b></p>	
<p>Kontratu honen lizitazioa iragarri zen Nafarroako Kontratazio Atarian argitaraturiko ediktu baten bitartez, 2016/03/21ean.</p> <p>Apirilaren 25ean eginiko ekitaldi publikoan, ireki ziren aurkeztu ziren 4 enpresen B kartazalak (proposamen ekonomikoa) eta honakoa da emaitza (balorazioak eurotan adierazten dira, BEZ barne, eta ekoizturiko kilowatio-ordua hartzen dute aintzat):”</p>		<p>La licitación del presente contrato fue anunciada mediante un edicto publicado en el Portal de Contratación de Navarra con fecha 21/03/2016.</p> <p>En acto público celebrado el 25 de abril se abrieron los sobres B (propuesta económica) de las 4 empresas licitantes, que arrojan el siguiente resultado (las valoraciones se indican en euros, con el IVA incluido y se refieren a kilowatio/hora producido): ”</p>	
<p>Zka. / N°</p>	<p>Lozitatzailea / Licitador</p>	<p>€</p>	
1	Eolimer Renovables S.L.	0,47190000	
2	Ríos Renovables S.L.U.	0,05488900	
3	Iturgintza Berotza S.L.	0,05445000	
4	Veolia Servicios Norte S.A.U.	0,05025735	
<p>Eolimer Renovables S.L.-k adierazi zuen, idatziz, bazela akats bat bere eskaintzan eta zifra zuzena “0,04719” dela.</p> <p>Apirilaren 26ko idazki baten bitartez, bidali zitzairen lau enpresa lizitatzailerei irekitze-aktaren eta Eolimer Renovables S.L.-ren idazkiaren kopia bana, eta hamar eguneko epea eman zitzairen egoki ikusten zituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.</p> <p>Ezarritako epean, alegazio bakarra jaso da maiatzaren 2an, Veolia Servicios Norte S.A.U.-k sinatua (1231. sarrera).</p> <p>Kontratazio-Mahaiak aztertu du afera maiatzaren 12an eginiko bileran.</p> <p>Kontuan hartuta Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 84. artikulua xedaturikoa, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartua, Kontratazio-Mahaiak adierazten du ez dela posible “... ondoren argudiatzea akats bat eskaintzan, kontratuaren esleipena lortzeko. Horrela inplizituki onartzen ari izanen litzateke proposamenak aurkeztu ondoren funtsezko eran aldatzeko aukera.</p> <p>Kontuan hartu behar da, gainera, Erregelamenduaren 81. artikulua bakarrik</p>		<p>Eolimer Renovables S.L. señaló por escrito que hay un error en su oferta y que la cifra correcta es “0,04719”</p> <p>Mediante un oficio de fecha 26 de abril, fueron enviadas a las cuatro empresas participantes en la licitación copia del acta de apertura y del escrito de Eolimer Renovables S.L., concediéndoles un plazo de diez días para que formularan las alegaciones que estimaran oportunas.</p> <p>Dentro del periodo establecido se ha recibido una única alegación, suscrita por Veolia Servicios Norte S.A.U., el día 2 de mayo (entrada nº 1231).</p> <p>La Mesa de Contratación ha estudiado el asunto en reunión celebrada el día 12 de mayo.</p> <p>Teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 84 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, la Mesa de Contratación señala que no es posible “... a posteriori, aducir un error en la oferta para lograr la adjudicación del contrato. De esta forma se estaría aceptando implícitamente la posibilidad de que las proposiciones fueran modificadas de modo sustancial después de haber sido presentadas.</p> <p>Hay que tener en cuenta, además, que el artículo 81 del Reglamento sólo prevé la</p>	

aurreikusten duela akatsak edo okerrak zuzentzeko aukera dokumentazio administratiboan eta ez eskaintza ekonomikoan”.

Aktan azaltzen arabera, eta aurreko guztia kontuan hartuz, Kontratazio-Mahaiak ulertzen du, aho batez, egokia dela gutxiestea Eolimer Renovables S.L.-k argudiatu duena eta kontratua Veolia Servicios Norte S.A.U.-ri adjudikatzea.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau ebatzi dut:

1 – Kontratua esleitzea Veolia Servicios Norte S.A.U. enpresari berak eskaini duen 0,05025735 eurotan, ekoizten duen kilowatio/ordu bakoitzeko.

2 – Adieraztea Baldintza-Pleguaren 15. puntuan ezartzen den behin betiko bermea osatu beharko duela eta behar den dokumentazioa ekarri kontratua formalizatu ahal izateko, Pleguaren 17. puntuan xedatutakoarekin bat.

3 – Ebazpen honen berri ematea lizitazioan parte hartu zuten lau enpresei, Era berean, Ebazpenaren edukina argitaratuko da Udalaren iragarki oholean eta web orrian eta Nafarroako Kontratazio Atarian.

subsanción de defectos o errores en la documentación administrativa y no en la oferta económica”.

Conforme a lo señalado en la acta y a la vista de lo anterior, la Mesa de Contratación entiende, por unanimidad, que procede desestimar lo alegado por Eolimer Renovables S.L. y adjudicar el contrato a Veolia Servicios Norte S.A.U.

Teniendo en cuenta todo ello, resuelvo:

1º Adjudicar el contrato, en la cantidad por ella ofertada de 0,05025735 euros por kilowatio/hora producido, a la empresa Veolia Servicios Norte S.A.U. (C.I.F. A-15208408).

2º Comunicarle que deberá constituir la garantía definitiva establecida en el punto 15 del Pliego de Condiciones y aportar la documentación precisa para la formalización del contrato, en el modo establecido en el punto 17 del Pliego.

3º Que se notifique la presente Resolución a las cuatro empresas que participaron en la licitación. El contenido de la Resolución será igualmente publicada en el tablón y página web del Ayuntamiento y en el Portal de Contratación de Navarra.

*Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:*

- A. *Berraztertzeo errekurtsua, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koa, aldatu zuena).*
- B. *Administrazioarekiko auzi errekurtsua:*
  - a. *Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.*
  - b. *Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa).*
- C. *Erreklamazioa Nafarroako kontratu publikoen Administrazio Auzitegiaren aintzinean jartzen ahal da kontra egin nahi den egintza jaso eta hurrengo egumetik hasita 10 egun naturalerako epean otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legearen, kontratu publikoei buruzkoa, ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duenaren 210.2.b artikulua arabera.*

Lo que notifico para su conocimiento y efectos, advirtiéndole que contra dicha Resolución podrá interponer alguno de los siguientes recursos:

- A. *Recurso de reposición, ante el mismo órgano autor del acto, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la notificación de esta resolución (Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero).*
- B. *Recurso contencioso-administrativo ante:*
  - a. *La Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra.*
  - b. *El Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la notificación (Ley 29/1998, de 13 de julio).*
- C. *Reclamación ante el Tribunal Administrativo de Contratos Públicos de Navarra, en el plazo de diez días naturales contados a partir del día siguiente al de la notificación del acto impugnado, conforme a lo establecido por el artículo 210.2.b de la Ley Foral de Contratos Públicos, modificada por la Ley Foral 3/2013, de 25 de febrero.*

Lesakan, 2016ko maiatzaren 17(e)an  
Lesaka a 17 de mayo de 2016

Alkatea / El alcalde,



Egiaztatzen dut / Doy fe,  
Idazkaria / El secretario,